

BURU TXIKI, SUDUR TXIKI, NI NAIZ MARI TXIKI. ¹

¹ Oharra: olerkia esatean esan behar dena puztuz; exageratuz.

BURU HANDI,
SUDUR HANDI,
NI NAIZ
PERU HANDI.²

² Oharra: olerkia esatean esan behar dena puztuz; exageratuz.

JOXE MARI
MIRI-MARI
LAU HANKA
ETA
BOST BELARRI.³

³ *Lokomotora berria* liburua.

BAT, BI.
BI BELARRI DITUT NIK,
KANPAIAK ENTZUTEKO NIK. ⁴

BAT, BI.
BI BEGI DITUT NIK,
IGELAK IKUSTEKO NIK.

BAT, BI.
BI ESKU DITUT NIK.
GAUZAK UKITZEKO NIK.

BAT, BAT.
NIK AHO BAT DAUKAT,
SAGARRAK JATEKO NIK.

BAT, BAT.
NIK SUDUR BAT DAUKAT.
LOREAK USAINTZEKO NIK.

⁴A. Lertxundi, *Euskolaurreko Euskararen Programakuntza* liburua (moldatua)
Oharra: "Bat, bi" edo "bat, bat" esatean, gorputz atala seinlatu. Atal bakoitzaren azken esaldia esatean, esaten dena imitatu.
Beste gaia: ZENBAKIAK

LODI, LODI, LODIA,
IPURDIA BOROBILA. ⁵

ARGAL, ARGAL, ARGALA,
ILE BAT BEZALA.

⁵ Oharra: “Lodi, lodi, lodia” ahots baxuarekin esan. “Argal, argal, argala” ahots altuarekin.

BEGIAK, IKUSTEKO.
BIHOTZA, MAITZATZEKO,
ETA
UMORE ONA,
ZORIONTSU BIZITZEKO.

6

⁶ Urtxintxa argitaletxea, Joxan Ormazabal.
Oharra: Keinuak egin.

BOST HATZ DITUT
ESKUTXOAN
ETA
BANAN-BANAN...
ZENBATZEN DITUT
DENAK!
BAT, BI... ⁷

⁷ Zubia-Santillana argitaletxea.

Oharra: "Bat, bi..." hatzak zenbatuko ditugu. 3 urtetan, esku bakar batekin hasiko ginateke.

Beste gaia: ZENBAKIAK

MARTIN ZIKIN,
PURRUT ETA MUKI,
GARBI EZAZU
IPURDI HORI. ⁸

⁸ *Haurtxoa Bi* liburua.

NI, NI, NI
KEPA NAIZ
ETA HAU
NIRE SUDURRA DA.
SUDURRA
ATXIS, ATXIS!

⁹ A. Lertxundi, *Eskolaurreko Euskararen Programakuntza* liburua (moldatua).

ESKU, ESKUTXO
ESKUTXO, ESKU.
ZURE ATZAMARTXOAREKIN
BOST ZENBATZEN DITUT.
1, 2, 3, 4 ETA 5. ¹⁰

¹⁰ *Fantasia* Aizkorri argitaletxea.

GORPUTZA ZAINTZEN DUT
KONTU HANDIZ.
ESKUAK GARBITU,
HORTZAK ESKUILATU,
ETA ILEA ORRAZTEN DUT,
POLITAGO EGOTEKO.
A! AHAZTU GABE,
BELARRIAK GARBITU,
APAIN-APAIN EGOTEKO.

11

¹¹ Fernando Alonso (moldatua) *Fantasia* Aizkorri argitaletxea.
Oharra: olerkia antzeztu.

HAUEK NIRE ESKUAK DIRA,
ETA DANTZA
EGIN NAHI DUTE,
GORA ETA BEHERA,
IGO ETA JAITSI.

12

¹² *Fantasia 3* liburua.

JAUZI BAT EGINEZ,
EZ NAIZ NEKATZEN.

JAUZI GUTXI EGINEZ,
PIXKA BAT NEKATZEN NAIZ.

JAUZI ASKO EGINEZ,
ZE NEKEA!¹³

¹³ *Fantasia 4* liburua.

Oharra: jauzi bat egin eta atsedean hartu / jauzi batzuk egin eta atsedean hartu / jauzi asko egin eta lurrean eseri